

NATURA 2000 SAREAREN eraketa eta hiritarren partehartze prozesua

Natura 2000 Sarea, habitat desberdinak eta beren flora eta fauna kontserbatuz, biodibertsitatea bermatzeko Europako Elkarrekin duen tresnarik garrantzitsuena da.

Beren eraketarako lehen urrats gisa, Habitat Zuzentarauak eta Hegaztien Zuzentarauak xedatutakoaren arabera, Garrantzia Komunitarioko Lekuak (GKL) eta Hegaztien Babes Berezikoko Eremuak (BBE), hurrenez hurren, hautatu dira.

H a u t e s p e n a r e n ondorengo urratsak zeintzuk dira?

Aukeratutako gune horiek Habitat Zuzentzarautik eratorritakoak diren kasuan Kontserbazio Berezikoko Eremu (KBE) gisa izendatu behar dira.

Xede horrekin, Euskal Erkidego Autonomoak **k o n t s e r b a z i o r a k o** helburuak eta neurriak tajutu eta onartu egin behar ditu, gune horietan dauden habitat eta espezieak egoera faboragarrian mantentzen direla bermatuz. Izendapen prozesuarekin batera partehartze prozesua antolatzen da, hiritarrek neurriari egin nahi dizkieten ekarpenak jasotzeko xedez.

Parte hartzeko

Tailerretan izen ematea email zein telefono bidez, HAIZEA aholkularitza medio, egin behar da. haizea@haizeaikerketak.com

943 39 22 29

Informazio gehiago www.euskadi.net/natura2000 web orrian.

Natura 2000 gune batek ekar ditzakeen onura sozioekonomikoak

- Ekosistema naturalek zuzenean onurak ekartzen dituzte, hala nola, kalitateko ur hornidura eta uholdeen aurreko kontrola.
- Bertako komunitatearen nortasunaren indartzaile diren paisaia eta kultur herentzia kontserbatzen dituzte.
- Turismoa erakartzeko giltzari izan daitezke eta baita produktu eta zerbitzu sorta ugaria sortzen duen **e k o n o m i j a r d u e r a** askotarikoaren euskarri ere. Aldi berean, bisitarien ingurumen kontzientzia handitzen lagun dezakete.
- Natura 2000 guneetara zuzentzen diren Europako, estatuko nahiz tokiko funtsetatik egiten diren inbertsio zuzen nahiz zeharkakoak erakar ditzakete.
- Landa eremuko enpleguaren **d i b e r t s i f i k a z i o a**, espezializazioaren bultzada eta tokiko garapena ekar ditzakete.

EAERI

DAGOZKION

DATUAK

Gaur egun Sare honetan lurraldearen %20 baino gehiago sartuta dago.

Sarea 52 GKL-k eta 6 BBEk eratzen dute.

2007ko abenduaren 3ko Aginduaren bidez behin-behinekoz onartu dira

“Kantabriako

Mendilerroa” GKL

Kontserbazio Berezikoko

Eremu (KBE) gisa

izendatzea eta “Arabako

Hegaldeko Mendilerroak”

BBG-aren kontserbazio

neurriak



NATURA 2000 SAREaren eraketa eta hiritarren partehartze prozesua

PARTE HARTZEKO 5 ARRAZOI



1. Gune jakin bat KBE (Kontserbazio Bereziko Eremu) edo BBE (Hegaztien Babes Bereziko Eremu) gisa izendatzeak dakartzan ondorioak ezagutzea. Proiektu honen baitan diseinatutako parte-hartze mekanismoek honako gai hauen inguruan informatua egon zaitezten ahalbidetuko dute:

- leku zehatz bat Natura 2000 Sarerako proposatua izateko eta KBE edo BBE gisa izendatzeko arrazoiak .
- ekonomia, aisialdia, kirola eta beste arlo batzuetako jarduerak leku horietan duten eragina .
- eremu horiei begira proposatuko diren eta kontserbaziorako erreminta izango diren helburu, irizpide eta neurriak .



2. Prozesua aberastu eta hobetuko duten ekarpenak eta alternatibak proposatzea. Frogatuta dago prozesu partehartzaile bat aberatsagoa dela eta proiektuaren arrakasta bermatzeko aukera gehiago dituela prozesu hori irekia bada eta eragileek euren ikuspuntua azaltzeko aukera badute.

3. Beste gizarte sektore eta kolektiboen ikuspuntua kontutan hartzea eta beraiekin iritziak elkartrukatzea. Parte-hartzeak, proposamenak egitea ez ezik, beste eragileen ikuspuntua ulertu eta euren proposamenak entzutea ahalbidetzen du, iritzien elkartrukatzea erraztuz.



4. Biodibertsitatearen kontserbazioan protagonismo handiagoa izatea . Etorkizunean ere zure iritziak, emaitzen inguruko hausnarketa egiteko eta neurriekin haratago iristeko, beharrezko izaten jarraituko duelako.

5. Benetako demokrazia partehartzaile baterantz aurrera egitea. Gobernantza prozesu eraginkorrak herritarren eta gobernuaren arteko lankidetzan oinarrituta daude. Bidea elkarrekin eginez baizik ez dugu lortuko hain preziatua den ondare hau, gu geu haren parte garen eta egungo zein etorkizuneko belaunaldientzat ezinbestekoa den biodibertsitatea alegia, kontserbatzea.



Azken finean, Natura 2000 Sarea proiektuak gizakiaren eta naturaren arteko aliantza, elkarren onura bilatzen duen konpromiso solidarioa, izatea baitu helburu .

